


Astekaria

# BARREN elgoi

## Laster, paper bilketa



### SOLOZABAL AUTOESKOLA



**GARRAIOLARI  
IKASTAROA**

IBILGAILU MOTA GUZTIAK

Motorra • Automobila  
Kamioia • Trailerra  
Autobusa • Remolkea

Toribio Etxeberria, 5 - 1. ☎ 70 23 84 - EIBAR



# KENSINGTON

Pedro Muguruza 8. ELGOIBAR TEL- FAX 74 02 36




GIPUZKOAKO  
HIZKUNTZ IRAKASLE  
ELKARTEKO BAZKIDE

## EKAINeko azterketetarako MATRIKULA epea ZABALIK! Martxoaren 21etik 25era

- Cambridge Unibertsitateko P.E.T.
- Londreseko Unibertsitateko maila guztiak (1etik 6ra)
- Atzerrira joateko aukerak eskaintzen ditugu.

Aukera zabala: Familiatan, erresidentzian, Intentsiboa, Au-pair.



## GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

**CRISTOBAL, GOMEZ, OTALORA ETA RUIZ DK.ak**

Honako aseguru etxeekin lan egiten dugu: Igualatorio Medico Quirurgico, Asisa, Capisa, Previa, Lagun Aro, Diputación Mediciatc eta partikularrak.

- ▶ Azterketa ginekologikoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- ▶ Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- ▶ Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- ▶ Antzutasuna
- Antisorkuntza
- ▶ Menopausiaren tratamendua

*Guzti hau  
Eibarren bertan  
urrutirago joan  
gabe!!*

Urkizu Pasealekua, 11  
(Orbeako dorrea lehenengo solairua)  
☎ 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR

### elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

#### ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

#### LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

#### ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

#### HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

#### ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Edurme Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

#### KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso

Jasono Osoro

#### MAKETATZAILEA:

Maitte Rementeria

#### PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

#### ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

#### KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Itziar

Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,

Myriam Aldazabal, Isabel Ansola,

Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello

Arrieta, Belen Arrizabalaga, Aina

Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier

Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix

Etxeberria, Eneiz Ezenarro, Itziar

Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina

Garagarza, Gotzon Garate, Amaia

Gorostiza, Alfonso Guillo, Maite

Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike

Larrañaga, Imanol Larrañaga,

Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga,

Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa

Sanchez, Eduardo Sanz, Jose Inazio

Sarasua, Ohiana Tarragual, Alain

Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez,

Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz

Vives, Aitor Zabaleta, Yulen

Zabaleta.

#### BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

#### INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Ez arduratzeak errudun egiten gaitu

**O**tsailaren 13an, Donostiako egunkari batek, artikulua argitaratu zuen eta ohargarria iruditu zait gure **BARREN**en azaltzea, bakoitzok geure neurrian hausnar dezagun.

Mundu honetan gosez hiltzen diren gizon eta emakumeen sufrimenduaren aurrean, jarrerarik gogorrena, dudarik gabe, egoera tragiko horretatik kanpo sentitzen garenon apatia eta bihotzgabekeria da. Horregatik gogorra eta erronka bizikoa gertatzen da, gosearen aurkako ekitaldirako aurten aukeratutako slogana "Ez arduratzeak, errudun egiten zaitu".

Komunikabideen aurrerapenei esker, gaur inoiz baino gehiago dakigu miseria, lurreko herrialde osoak hondatzen dituen gosez eta nahigabeaz. Baina guzti horrek, gure solidaritatea indartu beharrean, batzuetan, guztia etsipenez eta apatiaz begiratzea ohitzen gaitu.

Miseriaz eta heriotzaz mintzo zaizkigun zenbaki eta estatistiken aurrean, ardurarik gabe gelditzen ikasi dugu. Minutu bakoitzean gosez hiltzen diren hauren kopurua, ia bi segundoko kalkula dezakegu, gure kontzientziari barne zirrararik batere egin gabe. Telebistak serbitu diezagukeen irudi gogor eta tragikoena, berehala ezabatzen

du hurrengo telefilme edo konkurtsoak.

Eta, bestalde, gosez hiltzea, heriotzarik eskasena eta moralki txarrena da, heriotza mota guztien artean. Zergatik? Gaintitu daitekeena delako eta gure axolagabetasun eta arduragabetasunagatik bakarrik gertatzen delako. Adituek diote: janaria soberan dago, solidaritatea falta da.

Axolagabetasunak mendebaldeko herrialdeetan, batzuetan ezaugarri eskandalagarriak eta eraginkorrak hartzen ditu. Aurtengo Gabon jaietan, urrutiago joan gabe, Donostiako egunkari baten iragarrita ikusi ahal izan ditugu urte bukaerako afarien kostoa: 17.500 pezeta pertsonako. Egun batzuk beranduago informatu zitzaigun Chiapas-eko (Mexiko) indioak urte guztian zehar gutxi gora behera 13.500 pezetarekin bizi zirela. Nola dei diezaiokegu egoera honi?

Egunean ehun mila pertsona gosez hiltzen diren bitartean, gure gizarte aberatsetan ia populazioaren erdia, gehiegizko elikadura batetik eratorritako arazoez arduratuta bizi da. Lur berberaren gainean, egunero gosez hainbat gizon eta emakume erortzen diren bitartean, ondo elikatzen garenek, pasiatu, korrika edo "footing" egiten dugu gehiegizko pisua kentzeko.

**Enrike Larrañaga**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



## ? GALDERAK

•“Zergatik kentzen dituzte semaforoak arratsalde erdi aldera?”

Udaltzaingora deitu dugu eta zera erantzun digute: “Goizeko 8etan martxan jarri eta 5,30etan kentzen ditugu normalean. Zergatik? Tailerretako sartze-irtete orduetan sekulako kotxe ilarak sortuko lirakeelako semaforoak martxan egongo balira.

## KEXAK

Urasandiko futbito txapelketako antolatzaile batek deitu digu eta hilaren 13an (igandean) Udaltzainek izan zuten jarrera salatzea nahi du. Ia 14 urte darama futbito txapelketak eta ez du sekula trafiko arazorik izan. Orain, derrepentean, futbitoan jokatzera doan jendeari isunak edo multak jartzen hasi omen dira. Malgutasun pixka bat eskatzen die Udaltzainei.

## TXALOAK

Emakume batek deitu digu, martxoaren 8a pasa berri dela aprobetxatuz, bere burua eta gainontzeko emakume guztiak zoriontzeko. Oraindik asko falta omen da emakumenzkoa gizonezkoaren parean jartzeko beina, eguneroko lanak berdintasunera eramango omen gaitu.

## ESKUTITZAK

### Martxoak 8 eta emakumea

**M**artxoaren 8an, kontzientziaturik eta desio batek batzen gaituen emakume guztiok, kalera irten ginen gure eskubideak aldarrikatzeko. Egun horretan jasotzen dugun laguntza eta solidaritateak, indarra ematen digu gure lanean jarraitzeko, sexista ez den gizarte bat lortzeko, non emakume eta gizonezkoek eskubide berdinak izango ditugun.

Martxoaren 8a inportantea dela uste dugu, baina are garrantzitsuagoa egunerokotasunean egin behar den lana, emaitzak lortzea nahi baldin badugu.

### ANDRAIZE Emakume Taldea

### Baserriko esnearen kontrola

**E**skertuko genizuke gutun zerikusi zuzena baitu zuen aldizkarian, elgoiBARREN, kaleratutako artikulu batekin. Hain zuzen ere, 1994ko otsailaren 25ean, 4. orrialdean, GALDERAK deritzon sekzioan agerturiko artikulua.

Zuen galderak honela zioen: "kontrolatua dago baserriko esnea?" Galdera honen erantzun

gisa argitaratutako informazioa ez da guztiz zuzena. 1985. urtetik gaurko egunera arte behinik behin, bada elkarte bat kalean esnea zuzenki saltzen duten baserritarrek osaturikoa. Elkarte honetan badaude Elgoibarko baserritarrak ere. Kontutan izanik urte guzti hauetan baserritar hauek, produktuaren kalitatea lantzeko egin dituzten ahaleginak -teknikari bat kontratatu, hilean bizpahiru analisi,...- desegokia dela deritzogu zuen informazioa. Are gehiago, baserritar hauek eginiko ahaleginari esker, kalean zuzenki enboltsaturiko esnearen salmenta erregulatzea posiblea da, "Registro Sanitario" deritzona ardatz izanik.

### KORO GARMENDIA BASERRIKO ESNEAKO teknikaria

### Lagun Taldea

**J**oan den martxoaren 11ko BARREN astekarian, gure egoitza berriaren inaugurazioari buruz idatzitako zerbait ez zegoen ondo:

Lokalaren berritze lanak ez zituen Udalak burutu, baizik eta Lagun Taldeak. Barruko aldearen egokitzapenaren gastuak ez ditu Lagun Taldeak ordaindu, baizik eta Udalak. Egokitzapen lanetan milioi eta erdi gastatu ditugu eta urteko aurrekontu osoa 2 milioi eta 300 mila pezetatakoa da. Besterik gabe, agur bero bat.

### FELIPE CALLEJA Elgoibarko Lagun Taldea

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





**A**ste honetako erretratua **Juan Jose Araolazak** lagatakoa da, berau 1957. urtean Plaza txikian ateratakoa. Juan Josek esan digunez, Elgoibarko Eskolarteko futbol txapelketak amaitu ondoren atera zuten erretratua. Bertan azaltzen direnak, “Señorita Anita” akademiakoak dira eta bigarren gelditu omen ziren.

Ikusten denez, eskolarteko jokuak aspalditik antolatzen dira Elgoibarren, orduko umeek gaurkoek

dituzten “adelantuak” ezagutu ez bazituzten ere. (Ikus ezazue zelako baloia eta oinetakoak erabiltzen zituzten). Ikus dezagun zeintzuk osatzen duten futbolista kuadrila hau: tente, ezkerretik hasita:

**Patxi Zabaleta “Kakatzá”, Jose Inazio Elko-ro-Iribe, Juanjo San Martín “Aldai”, Luis Oleaga eta Juanito Ansola “Pakorro”.**

Belauniko, ezkerretik hasita:

**Jose Antonio Osoro “Katxo”, Juan Jose Araolaza eta Eduardo Zubiaurre “Kalixto”.**



## Irakurleek begia fin!

Benetan harrিতuta laga gaitu bi irakurlek egindako deiak. BARREneko 54. zenbakian argitaratu genuen erretratu zaharraren azpian, 1948. urtearen bueltan ateratakoa zela ipini genuen, horixe baitzen guk jaso genuen informazioa. Bi ikerlari-irakurle hauen iritziz, ezinezkoa da garai hartan aterakoa izatea eta bi arrazoi eman dizkigute: bata, Correo egunkariak garai hartan ez zuela erretratuan azaltzen duen itxura fisikoa. Beste formato bat omen zuen. Bigarrena, “Clay sigue siendo campeón” idatzita omen dago azalean eta beraiek esan digutenez, Clay 60. hamarkadako boxeolaria izan zen. Badakizue, norbait ikerlariaren baten premian badabil etor dadila BARREnera eta esango diogu norengana jo.

# Birziklaia: maiatzean, papera ere bai

**Datorren maiatzaren haseran, Deba Beheko Mankomunitateak papera birziklatzeko programa pilotu bat martxan jarriko du Elgoibarren.**

**Hondakinen eta produktu kutsakorren birziklaia aspalditik herritarren ahotan dabilen gaia da.**

**Askotan, pilak, plastikoak edota papera birziklatzeko ontzirik ez egoteaz kexatu izan gara.**

**Baina, zeregin horretarako ontziak jarriz gero, hona hemen berehala sortzen den galdera: Prest al gaude guztiok, etxeko, lantegiko edota dendako hondakinen artean aukeraketa egin eta, berau birziklatzeko jarritako ontzietara botatzeko? Horra hor erronka.**

**D**eba Garaiko Mankomunitatean beirarentzako ontzietan, pilak, papera eta kartoia jasotzeko ontziak daude. Deba Behean birziklaiaren kontuan atzetik goaz. Badira hamar bat urte beira edo kristala birziklatzeko kontenedoreak gure herrian jarri zituztela. Hala ere, biltzen den beira kopurua ez da oso altua Mankomunitateko arduradunek esan digutenez. Argi

dago beraz, harro sentitzeko moduko kontzientzia ekologiko sendo hori, ez dela, dirudienez, uste bezain sendoa. Zenbakiek behintzat hori adierazten dute: Deba Garaian urtero 10 kilo paper eta kartoi lortzen dira biztanle bakoitzeko eta beiraren kasuan, 5 kilo biztanleko. Kontenedore berriekin zenbaki hauek loditzea espero dute.

Beiraren birziklaia bultzatu nahi du Deba

Beheko Mankomunitateak eta horretarako kontenedore gehiago jarriko dituzte. Haseran Mankomunitate osorako 20 gehiago jartzekotan ziren baina Aldundiak esaten duena betez gero, urte bukaerarako 20 horiez gain, beste 26 jarriko liriteke, 46 guztira, beraz.

## **Maiatzerako, paper kontenedoreak**

Deba Beheko Mankomunitateak 17 paper

**Puy Garcia, Deba Beheko Mankomunitateko Ingurugiro Teknikaria**

## **"Nor bere zaborraren jabe da"**

**- Birziklaiaren kontua, nola dago gaur egun?**

- Beira orain dela hamar bat urte jasotzen du "Vidrala" izeneko enpresa batek. Enpresa honek ipar aldeko zona guztia hartzen du eta botilak egiten dituzte. Beraiek kontainerrak jartzen dituzte eta prozesu guztiaz arduratzen dira. Hurrengo pausua papera eta kartoia jasotzea izango da. Gipuzkoa mailan, Aldundiak eta

Gurutze Gorriak pilak jasotzeko kanpaina martxan daukate denda guztietan eta orain erabilitako eta kadukatutako medikamentuak jasotzen hasiko dira, farmazietan bakarrik. Asmoa behintzat hori da.

**- Epe motzean, hobekuntzarik ikusi ahal izango dugu?**

- Beiraren zein paper eta kartoiaren kasuan helburua 500 biztanleko kontenedore bat

edukitzea da. Nahiko zaila da, horregatik 800 biztanleko kontenedore bat egotea ratio ona dela deritzogu. Kartoia eta paperarekin gauza bera. 17 kontenedore erosita dauzkagu, "Ministerio de obras publicas" deritzonak beste 45 eman dizkigu eta Diputazioak 800 biztanleko kontenedore bat edukitzeko falta direnak emateko prest dago. Urtearen azkeneko izango da. 17 horiekin

kontenedore jarriko ditu Elgoibarren maiatzetik aurrera. Elgoibar papera biltzeko ontziak edukiko dituen Deba Beheko herri bakarra izango da eta esperientzia honekin programa pilotu bat jarri nahi izan du martxan Mankomunitateak.

Maalatik hasi eta Santa Ana kaleraino zabor kontenedoreak dauden lekuetan jarriko dira paper kontenedoreak, zabor ontzien alboan, hain zuzen. Auzoetan ere ontziak jarriko dira: San Roken bizpahiru, Urasandin pare bat, Santa Klaran zabor kontenedore bat papera biltzeko egokituko da eta Artetxe aldean beste bat. Herri osoa, beraz, kontenedorez ondo hornituta geratuko da eta etxe guztietatik metro eskasera papera jasotzeko kontenedore bat egongo



■ ■ Zabor ontziak dauden lekuetan jarriko dira paper kontenedoreak.

da.

### Errentagarritasun eskasa

Birziklaiak abantail ekonomikoak baino, abantail ekologikoak

dakartza. Gaur egun ez da errentagarria materiala birziklatzea. Baina hondakinak birziklatzen badira, bizitzeko era ezberdin bat suposatzen duelako da.

Errentagarritasun ekonomikoa lortzen ez bada ere, lehengai guxtiago xahutzen da eta energia iturriak, muga-tuak direla gogorarazten zaigu bide batez.



800/1eko ratioa betetzen dugu Elgoibarren. Asmoa beraz, Elgoibarren jartzea da baina orain zein enpresak egingo duen bilketa eta gauza horiek lotzen ari gara.

- Noizko paper eta kar-

### toi kontenedoreak Elgoibarren?

- Haseran, Aste Santuko oporrak eta gero hastea pentsatuta geneukan. Publizitatea egiten hasiko ginanteke, herritarrei eta komertzianteei

batez ere. Beharbada 20 bat egun atzeratuko dugu plana eta maiatzeko lehen asteetan hasiko gara. Orain etxez etxe inkesta bat egiten ari gara Elgoibarren, jendearen iritzia jaso eta birziklaiarekiko duten jarrera ikusteko. Inkesta horien emaitzak ikusi nahi ditugu eta horren arabera jokatu. Azken finean herritarrei lan egitea eskatuko zaie, norberak etxean banatu beharko duelako berria batetik, paper eta kartoia bestetik... Eta ez etxean bakarrik, dendetan ere bai. Dendariak dira guretzat kolaboratzaileak

eskasena. Hau da, askok ez dituzte kontenedoreak ganoraz erabiltzen: enbajajeak esaterako, kontenedore alboan lagatzen dituzte eta ez barruan, behar den bezala.

### - Kontzientziazio mailan, egiteko asko dago oraindik, ez?

- Pentsatu behar duguna zera da: nork bere zaborra gestionatu behar duela, nor bere zakarraren jabe dela, eta beraz, horrekin zer egin pentsatu behar duela. Deba Garaiako Mankomunitateko esperientzia ikusita, jendearen erantzuna espero baino hobea izan da.

# Fotero

OKINDEGIÀ  
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

# Kide

ILEAPAINDEGIA

☎ 74 00 69  
San Frantzisko, 19 1 esk.

# ZALDUÀ ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU  
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

# ITZALA

*Edergintza*

San Frantzisko, 49 - 1 esk.  
Tel. 74 43 03 - ELGOIBAR



# XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu  
eguna eta ordua*


San Bartolome 13, Tel. 74 19 97



# GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean  
saiatzzen gara  
Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bonboiak*



# OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan  
konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

## ASTE HONETAN

# Heziketa eta kontzientziaketa birziklaiaren oinarri

**K**utsadura eta zabortegien auzia, egunez egun garrantzi handiagoa hartzen ari da. Izan ere, buruhausteak gero eta larriagoak baitira. Beharrezkoa da arazo honetaz arduraztea.

Zabor bezala botatzen ditugun hainbat eta hainbat gauza, aprobe-txagarriak dira oraindik eta berreskutatzea litzateke egokiena.

Gaur egungo gizartean, giza-kiok zabor ugari sortzen dugu eta arazoak ditugu, zabor guzti hori desegin edo berriro erabiltzeko eran moldatzeko. Birziklaia hitza, askotan entzuten da azkenaldian. Erabil-tako material bat berriro erabiltze-ko bidean jartzeari, birziklaia dei-tzen diogu. Birziklatu daitezkeen materialen artean, paper eta kar-toiak, beira edo kristala, egurra, ehunak eta jantziak, metalak etab. ditugu.

Beste herrialde batzuetan, ikusi ahal izan dut, guretzat zabor hutsa dena, kontenedore ezberdinetan bildu eta birziklatzeko bidean jar-tzen dela. Hala nola: kristala, pape-ra, pilak, plastikoak, latak eta janari hondakinak.

Gure herrian, oster, kristala eta pilak bereizten baditugu ere, beste guztia zabor bezala, multzo orokor batean biltzen da, horrekin galtzen

ditugun aukerez ohartu gabe.

Kontutan hartu behar genukeen beste alderdi bat dago, berau baita guztiaren motorra: heziketa eta kontzientziaketa.

Birziklaia da punturik garrantzitsuenetariko bat betirako ez den natura errekurtsua salbatzeko, zeinetik geure etorkizuna aidean geratzen baita. Agian, erabilitako pape-rak sutara edo zakarrontzira bota baino lehen, ondo legoke bi aldiz pentsatzea. Horrela eskuartean duzun orri hau ere birziklatu ahal izango litzateke.

Beraz, birziklaia noiz egia bihurtuko zain dagoen ideia ederra dugu.



KOLDO LEIBAR



# Birziklatzen al duzu hondakinik?



**XABIER ZELAIA**  
20 urte, iturgina

Birziklaiaren aldekoa naiz munduan ezer ez daukan jende asko daukalako. Gauzak gorde egin behar dira eta ni papela erreziklatzen ahalegintzen naiz.



**LOREA ANSOLA**  
32 urte, etxeoandrea

Normalean botilak zakar ontzira botatzen ditut. Ez daukat ohiturarik baina kontenedore asko jarriko balituzte birziklatuko nuke. Ahorro bat da.



**MAITE GARZIA**  
15 urte, ikaslea

Normalean botilak kontenedoreetara botatzen ditugu; gainontzekoa zakar ontzira. Kontenedore gehiago behar dira, latak eta horrelakoak botatzeko.



**JOSE MANUEL HERRERO**  
42 urte, espezialista

Oso garrantzitsua da ahal den guztia birziklatzea, gauzak botata egotea baino hobea da. Kontenedoreak egonda, pilak, papera e.a. bertara botako nituzke.



**ANJELITA ALZIBAR**  
66 urte, etxeoandrea

Guk hara botatzen douz, imajinatzen dot horretarako daozela, ez? Ondo iruditzen jata, eta gehixago ipini ezker ere, hartuko naban lan hori.




**JUAN ALBARRAN**  
52 urte, pasteleroa

Botilak kontenedoreetara botatzen ditugu; dendako botila txikiak ere bai. Kartoa, adibidez, apartatu egiten dugu eta norbaitek eramateko jartzen dugu.



**KAFETEGIA**  
☎ 74 42 65

**LANBROA**



elgoibar

## ■ Aste Santurako irteera

Morkaiko Mendizale Elkarteak Pirinioetako Gavarnie-ra (Frantzia) irteera antolatu du Aste Santuko oporraldirako. Irteera hilaren 31an izango da eta itzulera apirilaren 4an. Egonaldiaren zenbatekoa 15.000 pezetakoa izango da, bidaia eta pentsio erdia (gosaria, afaria eta lo egitea) barne. Pirinioetako herri honetan, mendian ibili, eskiatu eta mendiko bizikletarekin ibiltzeko aukera dago. Izena emateko, lehenbaitlehen 74 02 97 zenbakira deitu, 30 laguntzako lekua baino ez da egongo eta.

## ■ Gutxitu fisikoentzako opor programa

Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazioak 1994rako opor programa prestatu du. Programa honetan parte har dezakete 16 urtetik 65ra bitarteko gutxitu fisiko sensorial edota organikoek. Bidaia Benidorm, Salou, Torremolinos, Tenerife eta Xanxenora izango dira eta maiatzetik azarora arteko aukera egongo da. Gutxituak laguntzaile bat eraman dezake, honen bidaia doanekoa izango delarik. Izena emateko Udaletxeko Ongizate Zerbitzura zuzendu, hilaren 31a baino lehen.


## ■ Xabier Zelaiaren aurkako epaiketa

Xabier Zelaia gazte elgoibartarra eta Talde Antimilitaristako kidea, ostegunean, hilak 17, epaitu zuten Eibarko epaitegian. Xabier Zelaia joan den azaroan intsumisioaren manifestazio batean irainak, mehatxuak eta desorden publikoak eragitearren epaitu zuten. Talde Antimilitaristako kideek intsumisioak "Ertzantzaren aldetik jasaten duen errepresioa eta epaiketa hau salatu" nahi dute.



AZKUE

**Zuhaitz eguna** zela eta, 25 arbola landatu zituzten Mintxetan, joan den larunbatean, hilak 12. Kultura Batzordeko lehendakaria den Gillermo Garateren partaidetzaz, Aldundiak emandako gaztainak landatu zituzten herriko haurrek eta Udaleko brigadako langileek. Inguruko gaztaina gaisotasun batek jota dago, eta horregatik, gaisotasun hau harrapatzen ez duen gaztaina mota bat sartu da. Mota hau, Japoneko eta bertoko gaztainaren nahaste bat da.



**Herri Batasunak Maltzaga-Urbinari** buruzko hitzaldia eman zuen joan den asteartean, hilak 15. Egun hauetan pillean dagoen gai honi buruz HBko zinegotzia den Javi Agirrek Herri Batasuna koalizioaren jarrera azaldu zuen. Alderdi abertzalea Maltzagatik Urbinaraino peajedun autopista egitearen aurkakoa da eta HBren proiektua merkeagoa eta bideragarriagoa dela adierazi zuen Elgoibarko zinegotziak.

## Garbiñe Del Hoyo diseinatzailea, Alemanian saritua

Garbiñe Del Hoyo diseinatzaile elgoibartarrak Alemaniako Düsseldorf-eko IGEDO izeneko nazioarteko diseinu ferian lehen saria irabazi du lentzeria edo barruko arropen atalean. Lehiaketan Europa guztiko diseinatzaileek hartu dute parte eta Estatutik, Katalunia eta Euskal Herriko diseinu eskola bana joan dira. Garbiñek, Donostiako diseinu eskolako ordezkari gisa hartu du parte. 26 urteko diseinatzaile elgoibartarrak lau hilabete eman ditu bildumako jantziak egiten eta erabili dituen oihalak tertziopeloa eta zetazko organtza izan dira gehienbat.

Bilduma 5 diseinuz osatua dago eta lehiaketan oihalean jositako bi diseinu aurkeztu behar izan ditu. Jantzi bilduma irabazlea, tertziopelo urdinean egindako body bat, oherako kamisoia eta gaineko alkandora bat izan dira. Epaimahaia Europako diseinu munduko etxe garrantzitsuenetako kideek osatu dute.

Garbiñek "oraindik ezin dut sinistu saria irabazi izana" adierazi digu eta oso pozik dagoela azaldu du. Gaur egun, Master batean ari da Garbiñe buru belarri eta, umeen arropa bilduma batean eta HIESaren inguruko diseinuetan ari da lanean.



**Ikastolako gazteak Euskal Telebistan** ikus ahal izango ditugu "Konta ditzagun gezurrak" lehiaketan. Santurtziko salbamentuko itsasontzi bati buruzko erreportaia bat egin behar zuten programakoek eta kapitaina, Anton Arraiz, ondarrutarra jaiotzez baina Elgoibarren bizi dena, ikastolako haurretaz gogoratu zen beraiek parte har zezaten. 7. mailako 14 neska-mutil abiatu ziren Santurtziko portura. Bertan marinel hauen lana ezagutzeko aukera izan zuten. Itsasora atera ziren, suak nola itzaltzen dituzten ikasi zuten, satellite bidez doan telefax bat ere erakutsi zien eta galderak egiteko aukerarik ere izan zuten, noski. Argazkian, 7 metroko luzera eta metro bakoitzeko 140 kiloko piua duen aingura bat altxatu nahian ikus ditzakegu.

### ■ Bandaren kontzertua

Musika Bandak kontzertu bat eskainiko du larunbatean, San Jose eguna, eguerdiko 12,30etan Ikastolako aretoan. Aurretik, goizeko 10,30etan, J. A. Osororen zuzendaritzapean kalejira burutuko dute. Kontzertuan bost obra joko dituzte: "Himno a Valencia" (J. Serrano), "Othello" (G. Rossini), "Casse Noisette" (Tschaikowsky), "Goyescas" (Granados) eta "El Caserio" (Guridi).

### ■ Gatza ateneoak droga berriak aztertuko ditu

Gatza ateneoak, Gazteen Arte Teknika eta Zientzien ateneoak droga berriak aztertuko ditu larunbat honetan, hilak 19, eguerdiko 12etan Kultur Etxean hasiko den ateneoan. Extasis-a, anfetak, speed-a, coca, heroina eta alkohola, ikuspegi ezberdinetatik, legetatik, penaletik eta sozio-psikologikotik landuko dira. Elgoibarko gazteei parte hartzea dei egiten zaie larunbatean izango den eztabaida honetan.

## Jose Inazio Sarasua:

# "Parisekoa inportantea da lanean jarraitzeko"

37 urteko gizon honek badauka herriko euskal kulturaren inguruan zeresanik. Arrasateko Lankide Aurrezkian lanordua egin eta gero, Jose Inazio Sarasua txistua, dantza edota beste edozein iharduerarekin dauzkan konpromezuei heltzen die. Euskal folklore eta kultura saltsan aspaldikoa da Jose Inazio. Ansolatarren errelebua hartu zuen hauek erretiratu zirenean, Anton Azpiazu, Josu

Mujika, Kastrillejo anaiak eta beste batzuekin batera. Azken hamar urteotan Udal Txistulari Taldea sendotu eta finkatu eta Haritz dantzari taldearen ardura hartu du. Oraingo honetan, Haritz Dantzari taldea argiaren hirian, Parisen, izan da Juan Antonio Urbeltzen Alakiketan ikuskizuna antzezten. Parisen bizi izandakoaren berri galdetu diegu Jose Inaziori eta hona hemen kontatu diguna.

**- Elgoibartarrak Parisen dantzari. Esperientzia polita, ezta?**

- Urbeltzekin hizketan egon naiz eta Parisekoak arrakasta handixa euki dabala dio. Datorren urtian berriro nahiko dabela ikuskizuna hara eruatia baina gertatzen dena da Eusko Jaurlaritzaren aldetik ez daukagula diru laguntza handirik. Joxean Arbelaitz, "Alakiketan" en produktore gisa dabil eta zirkuitu europear batean sartu gaitu.

**- Zergatik Paris?**

- Londres antzerkiaren hiriburua dan bezela, Paris dantzarena da. Han arrakasta euki ezkeror, horrek ondorio batzuk ekartzen ditu. Parisen arrakasta eukitza beste ikuskizun bat egiteko aukera eukiko gendun. Ondo irten da baina arazua ere euki dituguz: dantzari batzuk trenez jun behar izan dira gaeuz, beste batzuek azterketak euki dabez... Kritika aldetik Champs Elysee-eko zuzendarixak zorionak eman zizkigun, "chapeau".

**- Nolakoa izan da paristarren harrera?**



**"Oraindik txiklia jaten, bakeruekin eta deportezko zapatilekin entsaiatzen daben dantza talde asko daude eta hori ez da modua."**

- Teatruan jendia pajaritiakin tente, txaluak jotzen ikustia fuertia da. Zuzenian oso espektakularra da. Horretaz gain, asko harritu gaitu teatruak berak. Beste mundu bat da, entsaiatzeko lokal mordo bat, soinu eta argi elektronikoak, makilatze-ko eta erropa plantxatzeko profesionalak... Gainera, aurtengo denboraldian bi ikuskizun bakarrik zeuden: astebete lehenago Bolschoi baleta, eta gu. Hau euskal dantza talde guztientzako inportantia

izan leike, lan egiten jarraitzeko.

**- Nola sortu zen Alakiketan?**

- 86an Frantziako Confolens-eko folklore jaialdixaren bukaeran bulgaruek sekulako espektakulua egin zaben. Euskaldunak beti banatuta ibili izan gara danian, dantzan ere bai. Juan Antonio Urbeltzek eta ipar aldeko Thierry Truffaut-ek, ipar aldeko eta hego aldeko dantzari euskaldunek egindako espektakulu bat burutzeko ardura hartzeko

prest zeudela esan zaben. Urbeltz, Harkaitz izeneko talde batekin hasi zen, talde oso ona da, baina jende gehiago behar zenez, guri deitu zigun. Orditik asko ikasi dogu euskal dantza tradizionalan, hortxe daudelako onenak.

**- Zer suposatzen du ikuskizun honek euskal dantzaren panoraman?**

- Euskal dantzak prestigioa galduta zeukan. Euskal baleta dagoen bezela, dantza tradizionala "baletizatu" egin nahi izan dogu. Euskal Herrixan txiklia jaten, bakeruekin eta deportezko zapatilekin entsaiatzen daben dantza talde asko daude oraindik eta hori ez da modua. Lan egiteko baldintza minimoak behar dira eta dirurik ematen ez badigute ere, baldintza hoiek lortzearen burukatuko dogu.

**- Zer esan nahi du "Alakiketan" hitzak?**

- Hitz onomatopeiko bat da. Tobera jotzen danian ateratzen dan zaratia adierazten du. Tobera txalapartaren antzerakua da, egurraren gainean jo beharrean burdin baten gainean jotzen dana.

# Zaharrek **BERRI**

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 1. GEHIGARRIA



Udaberriaren ateetan gauden honetan, gehigarri berri bati hasera eman diogu. Aurreko asteetan baseritarren eta umeen txanda izan bazen, oraingoan gure nagusien barrenera sartu nahi izan dugu. Picasso pintore ezagunak behin esan zuen esaldi bat gogora ekarriz, "urte asko bizi behar dira gazte izaten ikasteko", horren bueltan nahi genituzke eratzea hilero lau orri hauek. Leonor Zulaikak estreinatu duen atalean, euren gaztaroko denborak kontatutuko dizkigute, gaurko hauekin konparatuz askotan. Txango, egonaldi, zerbitzu berezi eta abareri buruzko informazio motzak luzeago beste batzuekin tartekatuko ditugu. Adituek, berriz, elikadura, kirola, pentsioak eta antzeko gaien inguruko aholkuak idatziko dituzte. **BARRE**Netik nagusien barrenera.

## **MOTZAK**

### **Z**aharren biltokiko bazkideen bilera

Zaharren biltokiko zuzendaritzak batzarrerako deia zabaldu du bazkide guztien artean datorren hilaren 25rako, ostirala. Batzarra arratsaldeko 6etan hasiko da eta landuko diren gaien ordena honoko hau izango da: presidentearen agurra, aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, 1993ko memoriaren onarpena, diruzaintzaren gorabeherak eta, azkenik, galderak.

### **E**txez-etxeko zerbitzua

Etxeko lanak egiteko edo norberaren burua zaintzeko autonomia murrizten duen ezintasunen bat duenak etxez-etxeko laguntza pertsonalizatua jaso dezake. Aukera hau ez da hirugarren adinera soilik mugatzen. Eskerak Udaletxeko Ongizate sailean aztertzen dira eta kasuaren arabera ezartzen da laguntza.

### **T**elealarma eta teleasistentzia

Telealarma sistema hauek pertsona askoren ziurtasun sentazioa areagotzeko sistemak dira, hirugarren adinekoentzat ezezik, baita ezinduentzat ere. Telefono edo beste aparatua baten bitartez, laguntza eskainiko dion norbaitekin kontaktuan jartzeko aukera du edonork, edozein mementutan.

## LEONOR ZULAIKA

### "Gaztetasunian beti dirurik gabe egoten ginan"

Zenbat urte dituen galdetzean "asko, horrexegatik nago hemen" erantzun zigun. San Lazaro egoitzan bizi da emakume hau, elgoibartarra, baina, batez ere, maatarra, esan digunez. Hantxe jaio zen, bertan zen hazi eta, gaur egun ere, Maalan bizi da, San Lazaro egoitzan. Leonor-en oroimenak ez du beste inorenaren oroimenik. Hitz erraz eta arinez, jario etengabea aritu zaigu, aspaldiko kontuak gaurko beste batzuekin alderatuz. Amaitzean, irrifarre batez, hara zer erantsi zuen: "90 urte ditudala jarri".

**- Nola gogoratzen dituzu umé-tako urteak?**

- Umiak ginanian merixendia hartu eta kalera, sokasaltuan jolastera! Ez oin bezela, bata baletera, bestia ez dakit zer ikastera...

**- Eta gaztaroa?**

- Gaztaruan, jaixa ailegatzen zanian, domeketan, bezperatara juten ginan. Mezia izaten zan. Neskak eta mutilak aparte juten ginan.

**- Eta mutil kontutan, zer?**

- Domekero plazan danbolina egoten zan, dantza eitekoko. Guri kongregazioko zuzendarixak ez zigun lagatzen agarraua mutilekin eitzen, horregatik sueltuan edo, bestela, neska artian ibiltzen ginan dantzan. Baina batzuek eitzen ze ben mutilekin ere, oin moduan.

**- Maatarra zarela esan die.**

- Ni Elgoibarkua naiz, maatarra.

Akordatzen naiz zela ziklista bat zakagun, Eustaquio Etxeberria. Plazakuek Pedro Loiola "Txankia" zaken eta beti gaozen kontra. Karrera ere egin zan eta geuk irabazi gendun. Mutilek abestixa eta dana atera ze ben : "Eustaquio Etxeberria, malatarren kuadrillia, ha ganado la carrera a D. Pedro Txankia".

**- Kotxerik ez zegoenian zaldirik ikusten zen hemen, ez?**

- Bueno! Autua eta holakuak baino lehenago hemen Pedro kotxerua zauan, zaldixekin ibiltzen zan karrua zakan eta dilijentzia moduan trenera urtetzen zaban.

**- Arazorik haundiena zein izaten zen orduan?**

- Gaztetasunian beti dirurik gabe egoten ginan. Aitxak bi gizonen lana eitzen zaban baina kobrau umiak bezela. Durua irabazi baina bost duro bihar zian orduan eta, zeinek zeukan? Tailarrian akzidentia euki zaban aitxak eta hil egin zan. Ordainez, "una mezquindad".



eman ziguten. Oin, en cambio, miloiak ematen ditzue! Horregatik gustatzen jata oingo bizimodua, diru gehixao manejatzen dalako, pentsiuk eta ere badaude. Ze ilusio egin zian nere lehengo dirua ailegatu jatanian pentsio bezela! 1500 pta zian eta Gabonetan doblia!

**- Zer botatzen duzu faltan?**

- Gure garaixan asko disfrutatzen gendun, beste ezer ez gendun ezagutzen eta. Konformidadia zauan.

**- Eta zer aldatuko zenuke?**

- Oin libertade haundixa dago. Guassa eta holakuak neri ez jataz gustatzen. Gizonentzat tira, baina emakumeentzat, ezer!

**- Denborapasa bezela, zer?**

- Neri telebisiua asko gustatzen jata. Gauza asko ikasi dogu horri esker. Ondiok akordatzen naiz Felipe Gonzalez lehenengo bider ikusi nabanian, orduan ez zan presidentia. Baina asko gustatu jatan zela eitzen zaban berba. Ni ez naiz sozialista, eh! Zela izango naiz ba! Ni euskalduna naiz eta botua ere euskalduneri ematen diuet. Baina Feliperen berba eitekoko eria gustatzen jata, gero dana urtetzen jakoko geizki baina... Ahotik ondo, gero praktikan!"



Gure garaixan konformidadia zauan, beste ezer ez gendun ezagutzen eta.

# "Laugarren adina" ere sortu da

Azken hogei urteotan nabarmenki hasi da 65 urtetik gorako kopurua. Hazkunde horrek bi faktore nagusi ditu: batetik, bizi itxaropenaren etengabeko igoera edo, beste era batera esanda, heriotze tasaren beherakada. Bestetik, guztiok jakina da azken urteotan eman den jaiotze tasaren demaseko jeitsiera.



**B**i arrazoi hauek direla eta, populazioa ez da gehiago hazten eta zaharren pisu erlatiboa goraka doa, etengabe.

Egoera honek aurrera egiten badu, 2.000 urtean Gipuzkoa Ekonomi Elkartearen batzbestekoaren ginetik kokatuko da, herririk zahartuenaren tasa bera izango duelarik, Alemaniarena, hain zuzen ere. Gutxi gora behera, populazioaren %17,3ko tasa izango dutelarik biek 65 urtetik gorakoei dagokionean, 1991ean Gipuzkoakotasa %12,7koa zen

3. adineko populazioaren ia erdiak, %41ak, hain justu, 75 urtetik gora ditu eta %8, 2ra iristen da 85 urte baino gehiago duen jendetzaren kopurua.

Guzti horien artean bada da-tu bat besteen artean bereziki gailentzen dena, hirugarren adi-


na osatzen duen osotasunaren %61a emakumeek osatzen dute; %67ra igotzen delarik 75 urtetik gorako zenbakia.

## Deba Behea eta Elgoibarko kasuak

Eskualdeka, Deba Behea da zahar tasarik altuena duena. 59.922 pertsona bizi diren lurraldea izanik, 8.579 dira 65 urtetik gorakoak, %14,3a. Elgoibarren, beti ere 1991n egindako erroldaren datuen arabera, 11.693 pertsonetatik 12,6a osatzen zuten 65 urtetik gorako bizilagunek. Populazioak gero eta baldintza hobegotan betetzen ditu 65 urte, bai fisikoki, bai sikikoki bai eta ekonomikoki ere. Bizitza bera hobetu da, hau dela eta, "zaharren arteko zaharrak" edo, berriki baitaiatu diren moduan, "laugarren

adinekoak" sortu direlarik, 80-85 urtetik gorakoak, alegia. Elgoibarren, konkretuki, 562 pertsona zeuden 75 urte baino gehiagorekin. Seme-alabak etxetik joatean bikotea elkarrekin bizi da bietako bat hil arte. Orduan hiru irtenbide daude: bakarrik geratzen den pertsonak bere etxean jarraitzen du bizitzen, seme-alabaren etxera doa edota erresidentzia bat aukeratzen du. 1991n 167 bizi ziren bakarrik Elgoibarren, horietatik 29 gizonak eta 138 emakumeak. Eta, datu harrigarri bat, bakarrik bizi zirenetik, 75 urtetik gorakoek osatzen zuten gehiengoa, 63 izanik. Horien artean 52 emakume aurki ditzakegularik. Etxetik kanpo, berriz, San Lazaro egoitzan hain zuzen, 45 bizilagun daude gaur egun, 32 elgoibartar.

### 65 URTETIK GORAKOEN ADIN BANAKETA



\*Datuak 1991ko Elgoibarko erroldatik aterata daude.

### 1991n bakarrik bizi zirenen kopurua Elgoibarren

ADINA	Gizonak	Emakumeak	BIAK
65-69	13	43	56
70-74	5	43	48
75-...	11	52	64
<b>GUZTIRA</b>	<b>29</b>	<b>138</b>	<b>167</b>

## Elikadura eta hirugarren adina

**A**rtikulu honi sarrera emateko zera adierazi nahi dut haseratik. Kopuruz gora doan hirugarren adineko kolektibo hau osatzen duten pertsonen behar alimentarioak diferenteak dira adina, sexua eta egoera fisiokoari begiratzen badiegu.

Hirugarren adineko pertsona baten elikadura ugaria eta orekatua izan behar da. Helduena baino kantitate txikiagoan baina kalitatez berdina. Esnea eta esnekiak kaltzioa, A eta D bitaminak aportatzen dituzte. Litro erdi esne inguru eta 50 gramo gazta eguneko nahikoak izan daitezke. Okelak, arrainak eta arraultzeek proteinak, burdina eta B12 bitamina aportatzen dute, besteak beste. Hobe da koipe gutxi duten okelak jatea eta 100 gramo nahikoa da eguneko.

Zerealak (ogia, arroza, pastak) eta lekariak (babak, lentejak, garbantzoak) hirugarren adinekoen elikaduran sartu behar dira. Lekarien kontsumoak neurtua izan behar du, digestio arazoak sor ditzake eta. Barazkiak eta frutak bitamina eta mineralen iturri nagusiak dira. Eguneko 300 gramo barazki eta bizpahiru fruta ale gomendatzen ditut. Idorreria (estreñimiento) ekiditeko era egokia fruta eta barazkiak jatea da. Olioari dagokionez, nahikoa da bi zopa goilarakada egunean.



ARRATE ZUBIAURRE  
MEDIKUA. ELIKADURAN ADITUA

Ezin bukatu atal hau uraren aipamenik egin gabe. Gure gorputzarentzat ezinbesteko edaria da, eguneko litro edo litro t'erdia edatea gomendatzen delarik; idorreria bera ekiditeko ere komenigarria da oso.

Janari batzuen abusuak lodiera, diabetesa, tentsio igoera eta abar ekar dezake, hala nola: azukreak, goxokiak, enbutidoak, gurina, okela koipetsuak (txerria, bildotsa), koipe asko duten gaztak, eta frijitura guztiak.

Gatza murriztu beharrik ez dago, hipertentsoen kasuetan ezik, baina, hori bai, neurtzea komeni da.

Gehiegikerietaz gain, hirugarren adinean gabezia garrantzitsuak ere ematen dira. Eguzki faltak D bitaminaren eza ekar dezake. Barazki eta frutarik jaten ez bada C bitamiaren falta nabarrituko da eta, ondorioz, infekzioen aurrean defentsa gutxiagorekin aurki gaitzke.

Esnekien kontsumo ezak kaltzio falta sor dezake, honi ariketa fisikorik ez egitea gehitzen badiogu osteroposia eta hezurren hausturaren gehitze bat eman daiteke.

Bukatzeke eta ondorio gisa, elikadura orekatu batek eta ariketa fisiko neurtu batek hirugarren adinean eman daitezkeen gaisotasunak ekiditen eta gainditzen lagun dezakete.



## MOTZAK

### Neguko egonaldietarako programa

Guardamar de Seguran egonaldiak antolatu dira, Alikanten. Egondaldi hauek bederatzi hilabetekoak izaten dira, hiru txandatan banatuak. Urrian lehenengoa, bigarrena urtarrilean eta Aste Santuaren ostean azkena, ekaina arte. Azken txanda honetara joan nahi duenak badu aukerarik, izen-emateko epea zabalik dago oraindik eta. Informazio gehiago Udaletxeko Ongizate Sailean : 74 10 08.

### Aldi baterako egonaldiak egoitzetan


Programa honen helburua, familiarekin bizi diren nagusiak denbora baterako egoitzetan edukitzea da. Era honetara familiak egun horietan atsedena hartzeko aukera izaten du nagusia ohitua dagoen inguruan geratzea errazten duelarik, zerbitzu apropos eta egokitu batekin.

### Termalismo programa

Aurten ere Inersok hirugarren adinerako termalismo programa antolatu du. Helburua, bainuetxeetako tratamendua pentsionistei merkeago eskaintzea da. Aukera hau jaso ahal izateko, eskaera egiten duen pertsonaren balorazioa egingo da, bakoitzaren beharra, egoera ekonomikoa eta adina hartuko direlarik kontuan. Derrigorrezko baldintzak dira Seguritate Sozilean egotea eta medikuak hala aginduta izatea. Traumatismoak, erreuma, artritis, arnasa hartzeko arazoak eta abar sendatzeko tratamenduak izango dira. 15 egunetako txandak izango dira. Ekaineko txandan parte hartu nahi duenak martxoaren 18a arte du izena emateko epea. Irailetik abendura bitartekoetarako epea maiatzaren 31n bukatuko da. Informazio gehiago 74 10 08an.



## Carmelo Modamio

**● Zein da zure lana? Zertan datza?**

▶ Merkatuko arduraduna naiz.

“Plazelo” deitzen naute baserritarrek. Jendea atenditzea da nire eginkizuna.

**● Aukeratzekotan, zure lanarekin jarraitu ala beste batean aritu? ▶**

Oso gustura nago horrela.

**● Zerbait esaten al dizu**

**martxoaren 8ak? ▶** Bai, ondo iruditzen zait emakumeen lana baloratzea, eta, era berean, ekonomikoki aintzat hartzea.

**● Ikusi al duzu “Cinema Paradiso” filmea? ▶** Ez.

**● Zenbat pelikula ikusi zenituen Odeoian? ▶** Asko, baina osorik gutxi.

**● Negar egin al zenuen Odeoia bota zutenean? ▶** Ez, baina pena eman zidan Udalak parte ez hartzea hura “cine-teatro” a baitzen, ez zine hutsa.

**● Pentsioei dagokienez, zer iritzi daukazu seguru pribatuei buruz? ▶**

▶ Ez ditut gaizki ikusten.

**● Ondo informatuta egotea atsegin al duzu? ▶** Egunkaria eta telebista gutxi begiratzen ditut baina irratia asko entzuten dut.

**● Zer gustatzen zaizu gehien Elgoibartik? ▶** Jendea eta bere begikotasuna.

**● Zein iritzi daukazu Udaletxean egokitu den zine aretoaz? ▶** Obrak dauden bitartean ondo dago.

**● Nola ikusten duzu merkatu plaza gaur egun? ▶** Baserritarrak askoz gutxiago jeisten dira. Orain dela 22 urte ireki zenetik erdia galdu da.

**● Udaberriak odola asaldatzen al dizu? ▶** Ez, ezertarako.

**● Jubilatzen zarenean, zer? - Ez dut pentsatu oraindik.**

**● Txakurra gizonaren lagunik onena al da? ▶** Lagun handia da.

**● Larunbat honetan espero al duzu zerbait? ▶** Zeozer beti jausten da.

**● Zer deritzozu Maltzaga-Urbinari buruz? ▶** Deba Beherako ondo ikusten dut, ia beharrezkoa.

**● Baserri giroan bizitzea atsegin al duzu? ▶** Hemen ia baserri giroan gaude, ez?

**● Aste Santuan joango al zara oporretara? ▶** Ez, baina lo egiteko eta lasai ibiltzeko aprobetxatuko dut.

MYRIAM ALDAZABAL

## ALAKIKETAN PARISEN

**DOINUA:**

Frantses euskaldun bat

Alakiketan ikuskizunaz bertsotan nahi nuke mintza. Izerdi asko bota ondoren iritsi dira Parisa.

Kimu berriak irten zaizkio ikusiz lehenengo printza. Udaberria heldu baino lehen loratuko da haritza.

Zortzikorekin egin ondoren nik ez dakit zenbat jira. Alakiketan iritsia da moda berrien hirira. Elgoibartarroi galdekizun bat datorkigu memorira: noizko datorren ikuskizuna dantzari hauen herrira.



IRATI AGIRREAZALDEGI

B  
E  
R  
R  
I  
T  
O  
T  
A  
M

INTERIORES

**BARRUIEN DEKORAZIORAKO ESTUDIOA**

- Proiektuak eta erreformak
- Lokal komertzialak eta etxebizitzak
- Obren zuzendaritza eta gramioen koordinakuntza
- Neurriera egindako altzariak

Errosario 15. ELGOIBAR ☎ 74 40 19 / 55

**Maria Urizar**

ileapaindegi  
mixtoa

Errosario 9-1ezk.  
☎ 74 17 85 ELGOIBAR

BOUTIQUE  
DEL PAN

Enpanada  
Baserriko ogia  
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92



## Obrak ibaian

Herriko Antzokia dagoen aldean, Deba ibaia bideratuko duen orma bat eraikiko da. Construcciones Ulacia enpresaren esku utzi da proiektua, 5.557.125 ptako kostuaz.

# Elgoibarko erretratuak aterako dira airetik

**E**lgoibar herriari hainbat argazki airetik ateratzeko proiektua onartu berri da. Berrogeita bost erretratu inguru izango dira, hirigune guztia jasoko dutenak, eraikuntzak dauden zona guztiak; kale, auzo eta baserriak ere barne.

Hirigintza sailak aurkeztu zuen proposamen hau, aipaturiko argazkiak Elgoibarri buruz dauden dokumentu eta planuen osagarri izan daitezten. 30x40 zm-ko laminak izango dira, berrogeita bost guztira, horietatik hamabost baserri eta mendi inguruetan ateratakoak.

Lamina hauek plano erakusle batez lagunduak joango dira, bertan, auzo bakoitza zenbaki batez izendatuz eta kontsulta egiten due-

nak erraz topa dezan ikusi nahi duena.

Hauetaz gain, beste argazki-muntai bat ere egingo da. Oraingo hau erretratu bakar bat izango da, Elgoibar herria osoki hartuko duena, Saturixon hasi eta Alzola amaitu bitartean. 2'50 zm-ko luzera eta 0'70 zm-ko zabalera izango du eta Hirigintza Sailak duen bilera gelan jarriko da. Ikustea nahi duen edonork aukera izango du.

Guztiak koloretan izango dira eta proiektuaren gauzaketa eguraldiaren arabera izango da. Aurre-rantzean, egun eguzkitsu batean zeru urdinera begiratu eta hegaxkin bat ikustean, erretratuak ateratzen ari direla kontuan izan.



## Espaloiak konponduko dituzte

San Lazaro egoitzatik Herriko antzokira daraman espaloia konponduko dute. Gasa sartzen ibiltzeak dexente izorratu ditu aipatu espaloiak, horregatik erabaki da horiek konpontzea. Obra hau ere Ulaciaren enpresari eman zaio, 4.150.137 ptako aurrekontuarekin.



## San Lazaro egoitzak superabita

San Lazaro egoitzak superabita izan zuen 1993. urtean. Diru sarrera handiagoak egon ziren irteerak baino, ondorioz 8.305.543 ptako superabita lortuz.



## Ibilgailuen zergei buruz

Ezindu fisikoek ibilgailua izateagatik dagoen zerga merkeago ordaintzen dute. Aspaldian, ordea, zenbait pertsonak minusbalia fisikoren bat duen senitartekoaren izenean jartzen dute kotxea, nahiz eta haiek gidatzen jakin ez askotan. Iruzur hauek ekiditeko hainbat neurri hartuko direla jakinarazi da.



PAISAJES ESPAÑOLES

## UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



▲ **IZENA:** Jose Luis Niebla  
 ▲ **ADINA:** 49 urte.  
 ▲ **LANPOSTUA:** Artxibo eta fotokopiagailuaren arduraduna.  
 ▲ **FUNTZIOA:** Egunkari guztietan Elgoibarri buruz datozen berriak jaso, gorde eta sail guztietan banatu, hala eskatzen badute, boletinak artxibatu, bai eta akta guztiak ere eta fotokopiak atera...

▲ **NOIZTIK LANPOSTUAN:** 18 urte udaltzain bezala eta hiru, artxibo lanetan.  
 ▲ **LANAREN ALDE ONA:** Dena guztatzen zait, jendea ere bai.  
 ▲ **ALDE TXARRA:** Guzti hau ordenatuagoa edukitzea gustatuko litzaidake, baina ez dago tokirik, beraz...


## Olasoko eliz ataria

- Aintzinako monastegi eta parrokia ohitik arkupe zabal bat gelditzen da, gaur egun herriko hilerriko sarrera dena.
- Euskal gotikoko adibide esanguratsua dugu.
- M.A. Arrazola arte historigileak dioenez, Debako Andra Mariri eskainiriko portada egiteko Elgoibarkoan oinarritu ziren.
- Arkitektoa Martin Santxo izan zen eta atariko harlandu baten grabatua dagoen bezala, 1459an burutu zuen.
- Hormak kararrizko harlanduzkoak dira.
- Arkupe zabal honek kontraorma txikiak ditu aurrekaldean eta, badirudi, atzekoak bota egin zituztela hilobiak egiteko.
- Lau aldetara arku zorrotz bana ditu eta hauen gainetik beste arku itsu bana.
- Gaur egun egurrezko sabaia badu ere, garai hartan gurutze ganga zuen, arku edo nerbio ohien lau abiapuntuak ikusten baitira.
- Portada dagoen aldetik ganga eratzen zuten nerbio ohien bi abiapuntuak irudi txikiz dekoratuak daude, eskubi aldean bi gizaki agertzen direlarik eta ezkerrean beste bi bai eta hortzak erakusten ari den munstro bat ere.
- Mainelean irudia falta da, itxuraz Andra Mariarena zena, zenbait idatzitan

aipatzen den bezala.

- Bi arkibolta eta atezangoak dekoratuta daude, munstro eta hosto naturalez.
- Arkibolta horietan, birjinen eta santuen hogeit hamar irudi txiki ere agertzen dira.
- Atezangoetan haseran tamainu naturaleko sei santu bazeuden ere, gaur egun bost besterik ez dira kontserbatzen. Honako hauek dira, ezkerretik eskuinera: San Sebastian, S. Juan Bataiatzailea, S. Pedro, S. Pablo eta S. Bartolome.
- XVI. mendeko dokumentuetan tinpanoa margotuta zegoela adierazten da, Kristo lapurrekin agertzen zelarik.

PELLO ARRIETA



## Silvestre Ansola

Txistularia (1848-1929)



ARAGO

- Silvestre, Roke Ansolaren semea, Ansolatarren belaunaldiko hirugarrena da. Elgoibarren jaio zen 1848ko uztailaren 1ean.
- Sallobenteko irakaslea zen, solfeoa ere irakasten zuen eta Elgoibarko Banda Muzikaleko zuzendaria izan zen.
- 70 urtez jardun zuen txistua jotzen. Txistuaz maitemindutako gizon honek, txisturako ehundaka obra bildu zituen bizitzan zehar.
- Alde guztietara paper pautatua eramaten zuen soinean eta belarriek entzuten zuten edozein doinu berri jasotzen zuen.
- Perlesia izeneko gaitzak jota, ezker eskuko hatzamarrak txistua jo ezinda geratu zitzaizkion. Behin, semearen emazteak, txistua esku artean, jo nahian harrapatu zuen. Ezin zuela jo ohartu zenean, honako hitz hauek etorri zitzaizkion ezpainetara: "Ai, nere txistu maitia. Ezin jo!"
- 1929ko ekainaren 24an hil zen 80 urte zituelarik.



*Familiakoren bat edo lagunaren bat hiltzen bazaizu  
BARRENEK sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak  
edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*

## MOTZAK

### Gorka Garate, Gipuzkoako selekzioan

Joan den hilaren 12an, Ibai gimnasioko Gorka Garatek, Amurrión jokatutako txapelketa batean Gipuzkoako selekzioko kide bezala parte hartu zuen lehen aldiz. 15 urtetik beherako mailan, Gipuzkoako selekzioaz gain, Arabakoak, Bizkaikoak, Madrilekoak, Errioxakoak, Burgoasekoak eta Valladolidekoak jardun zuten. Gorkak 13 urte baino ez ditu eta honako hiru selekzioarekin parte hartzen duen lehen aldia bada ere, etorkizun handiko judoka dela erakutsi zuen, Madrileko ordezkariari erraztasun osoz irabazi baitzion. Gipuzkoako selekzioko partaide izateko, Gorkak domina lortu behar izan zuen joan den hilean Errenderin izan zen Gipuzkoako txapelketan.

### Egi eta Maiztegi DV-ETB txapelketan

Javier Arriola "Egi" eta Santi Maiztegi elgoibartarrek, Arrasaten izango den DV-ETB txapelketan parte hartuko dute, herri kirolen sailean, larunbat honetan, hilak 19. Egik, Haritza izeneko taldearen izenean harriak jasoko ditu eta Santi Maiztegi, Arteondo taldearen ordezkari gisa, kaskara batzen frogan jardungo du. Igandean, hilak 20, ETBk lehenengo katetik eskainiko du ikuskizuna arratsaldeko 6,45etan.



Jon Gonzalez:

### "Nere helburua finaletara heltzea da"

■ **Zer da automodelismoa?** - Neretzat, hobby bat da. Auto bat gidatzea bezala da, auto txiki bat, barruan joan gabe, eta inolako arriskurik gabe. Mandu baten bidez kontrolatzen da eta zirkuitu itxietan ibiltzeko da. Neurriak luzeraz 10 zentimetrotik metro t'erdira bitarkoak izan daitezke eta zabalera, 15 zentimetrotik metro erdira bitartekoak. Estandarra 40x20koa da.

■ **Larunbatean, hilak 19, Minxtetan automodelismo erakusketa egongo da.** - Kirol hau ezagutzeko aukera izatea nahi dugu. Antolakuntzan Udaleko Kirol Zerbitzuak lagundu dit. Bilboko jendea etorriko da, nire klubekoak, eta erakusketa denez, gezurretako lasterketa burutuko dugu. Lehendabizi, sailkatzeko mangak egongo dira, gero finalerdiak eta azkenik, finalak. Finalean 10 gidari onenak izango dira.

■ **Nola dago automodelismoaren kontua Elgoibarren?** - Orain hiru gabiltza. Bat, Alfredo Alvarez izeneko mutil bat da, aspaldian dabil mundu honetan, eta bestea, Patxi Ansola da. Patxi, duela urtebete hasi zen gasolinazko autoekin.

■ **Gidaria izateaz gain, mekanikoa ere bazara, ez?** - Bai, autoa haseran muntatu egin behar da eta lasterketa bat buka-



tzean dena desmuntatu eta garbitu. Piezaren bat apurtu den ala ez begiratu behar da... Honi esker autoaren mekanika guztia ikasi dut eta automozioa ikasteko asmoa ere badaukat.

■ **Laguntza ekonomiko aldetik, nola zabilta?** - Patrozinatzaileak daude, baina gastu asko poltsikotik ordaindu behar izan dira, hala ere. Udaletxeek ere laguntzen dute, baina zirkuitoak muntatzen batez ere. Orain arte Motul etxea izan da nire babeslea eta orain beste batekin nago.

■ **Zein txapelketatan arituko zara aurten?** - Euskadiko txapelketako zenbait lasterketa korrituko ditut, Errioxakoa eta "interregionala" deitzen dena. Espainiako txapelketan ere parte hartuko dut.

■ **Aurten zer?** - Helburua finaletan sartzea da. Espainiako txapelketan esaterako, talde ofizialen atzetik geratuta ere, pozik. 20 edo 25 talde ofizial egon ohi dira eta horiei irabaztea ezinezkoa da, mekanika zein gidaritza aldetik.

- Adina: 16
- Kotxe txikia ala handia? Handia, noski.
- Kotxearentzako lurrik onena? Todoterrenoarentzat, harririk gabekoa.
- Beste kirolirik? Futbitoa.



## DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIAK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

# TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

# 22 taldek entrenatzen dute astero Mintxetan

**B**adira sei bat hilabete Mintxeta ireki dutela eta Udaleko Kirol Teknikariak, Ramon Mujikak esan duenez, zelaia-aren eta orokorrean instalazio guztien aprobezkoak ezin hobea da. Astero, herritarrez gain, eskualdeko 22 taldek jarduten du Mintxetan entrenatzen eta dagoeneko 125 partidutik gora jokatu dira.

Ramon Mujikak esan digunez, futbol zelaia eta atletismo pista egunero erabiltzen dituzte herriko zein kanpoko taldeek.

## 22 futbol talde

C. D. ko sei futbol taldeek arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean erabiltzen dute futbol zelaia. Lehenago, 4etatik 6etara bitartean, ETB txapelketan jokatzeko ari den 2Bko talde konbinatuak jokatzeko du, Euskadiko 15 eta 17 urte azpiko mutilen selekzioek ere bai, hauek batean Joseba Etxeberriak jokatzeko duelarik, Euskadiko nesken selekzioak eta eskualdeko infantil mailako Federazioko eskolak.

Hauetzaz gain, Eibarko 8 taldek Mintxetan entrenatu eta jokatzeko dituzte partidua. S.D. Eibarko 2A mailako taldeak Mintxetan entrenatzen du eta Ohorezko Dibisioko taldeak, lehen mailako jubenil taldeak eta kadete taldeak asteburuetako partidua jokatzeko dituzte bertan. Urki eta Eibartarrak taldeetako 2. errejionalak,



■ ■ Euskadiko nesken selekzioa Mintxetan entrenatzen.

jubenilak eta neska taldeak ere Elgoibarrera erortzen dira liga jokatzera.

Talde hauek Mintxetan jokatzeko, dirua ematen du kirol teknikariaren esanetan. Eibarko taldeei kobratu egiten zaie bertan entrenatzeagatik eta Federazioak ez badu ere dirutan ordaintzen, materialean inbertitzen du. Aurten esaterako, milioi bateko kostuko porteriak jarri ditu Mintxetan Federazioak.

Ikastetxeetako hezkuntza fisikoko zenbait klase ere bertan ematen dira eta hondartzako futbol taldeek ere Mintxetan jokatzeko dute.

## Atletismo pista

Atletismo pistaren erabilera ere

guztiz emankorra da Ramonen iritziz. Bertan entrenatzen dute Ego-Tokikoek, Eibarko atletismo taldekoek eta Arrasatekoek ere bai.

## Errealak-Ajax

Apirilaren 2an, Errealerako jubenilak eta Amsterdam-eko Ajax taldearen arteko nazioarteko futbol partidua jokatzeko da Mintxetan. Errealak urtero antolatzen du nazioarteko txapelketa hau eta aurten, donostiarrei A taldean jokatzeko tokatu zaie, Ajax,artzelona eta Osasunarekin batera. Partidua arratsaldeko 5etan hasiko da eta ekinean ikusi ahal izango ditugu, txuriurdinen kolorez jantzita, Elgoro-Iribe eta Etxeberria elgoibartarrak.

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan .Larunbata 20

16,00: C.D. Elgoibar - Aierru (2. errejionala) Igoerako play-offa

17,45: Eibartarrak - Anaitasuna (Neskek)

### Igandea 20

10,00: Urki - Groseko (Jubenilak)

12,00: Eibar - Burumendi (Jubenilak)

16,00: Elgoibar - Martutene (Jubenilak)

### PILOTA ARTAZO MEMORIALA Sallobenten. Larunbata 19

11,00: Loyola• Osoro - Armazio• Olazarra

Ondoren: Agirrebeña - Oier

### AUTOMODELISMOA Mintxetan Larunbata 19

11,00: Bilboko 15 auto gidari. Lehenengo sailkapen lasterketa eta ondoren 10 lehenengo artean finala.

## EMAITZAK

### ESKUBALOIA

Mundaiz 12 - Elgoibar 13 (Kadeteak)

Hondarrabi 19 - Elgoibar 23 (Jubenilak)

### FUTBOLA

Haundi 2 - Santurtzi 0

Elgoibar 2 - Segura 1 (2. errejionala)

Beti Ona 4 - Elgoibar 1 (Jubenilak)

Elgoibar 4 - Aloñamendi 0 (Neskek)

### FUTBITOA

Elgoibar 4 - Aloña Mendi 1 (1. maila)

Elgoibar 10 - Pescados G.J.A. 0 (2. maila)


### PILOTA ARTAZO MEMORIALA

Lendinez•Otaño 20 - Loyola•Osoro 22

Agirrebeña 18 - Gabilondo 22



## URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



Sailkapen fasea bukatu ondoren, datorren asteburuan azken txanpa hasiko da Urasandiko futbitoan. Beheko tauletan gorritz agertzen zaizkigun taldeetako batek eramango du aurtengo txapela, beraiek lortu baitute ligarako txartela. Kopari dagokionez, aurtuen berrikuntzak daude: taldeak lau multzotan banatu dira (argazkian antolatzaileek multzoak egiteko burutu zuten zozketaren une bat ikus dezakegu) eta ligila sistema baten bidez multzo bakoitzeko lehen postua lortzen dutenek jokatuko dituzte bi finalerdiak. Aipatzekoa da txapelketaren finalak, bai kopakoa eta bai ligakoa, Plaza handian jokatzeko asmoa dagoela. Antolatzaileak jarri dira harremanetan Udaletxearekin eta hasera batean badirudi posibilitate handiak dituztela proiektu hori aurrera eramateko. "Finalak maiatzaren 29an jokatuko direnez eta egun hori tanborrada eguna izanik, Plaza handia okupatuta dago. Baina partiduen ordua piska bat aurreratuz konpon daitekeen arazoa da", komentatu digute antolatzaileek. Ideia ez da batere txarra eta lerro hauetatik zorterik onena opa diegu helburua lor dezaten.

### SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA

<b>A</b> Taldea	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1. MIMOX	11	9	2	0	20
2. KARKIS	11	9	1	1	19
3. ARROAK	11	7	3	1	17
4. KOSAKOS	11	7	2	2	16
5. CHELSEA	11	5	2	4	12
6. PEDRUSCO	11	5	1	5	11
7. LANBROA	11	3	5	3	11
8. HUNDE VERBOTEN	11	3	2	6	8
9. ORAIKO CAFE	11	3	1	7	7
10. XIRULA	11	1	4	6	6
11. BERROGEI DURO	11	2	0	9	4
12. RESTO DEL MUNDO	11	0	1	11	1

<b>B</b> Taldea	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1.G. GARCIA	11	9	2	0	20
2. AMETSA	11	7	1	3	15
3. DINAMO KALIMOTXO	11	7	1	3	15
4. BAR ROKE	11	7	1	3	15
5. UNIV. DE CHILE	11	6	2	3	14
6. TXIRRISTAKA	11	5	2	4	12
7. SPORTING	11	4	3	4	11
8. KING KONG	11	4	2	5	10
9. LAGUN TOKI	11	2	3	6	7
10. GORRI BELTZ	11	2	1	8	5
11. LUCKY LUKE	11	1	3	7	5
12. ALDAVAS	11	1	1	9	3

\* Gorritz dauden taldeak dira ligarako sailkatu direnak.

### KOPAKO MULTZOAK

<b>A</b>	<b>B</b>
• Xirula	• Lucky luke
• Txirristaka	• Gorri beltz
• Pedrusco	• Univ. de Chile
• Lanbroa	• Chelsea
<b>C</b>	<b>D</b>
• Lagun Toki	• Hundee Verboten
• King Kong	• Resto del Mundo
• Aldavas	• Berrogei Duro
• Sporting	• Oraiko cafe

### \*\*\*\* DATOZEN PARTIDUAK \*\*\*\*

#### LARUNBATA 19

11,00: Arroak - Dinamo Kalimotxo

12,00: Bar Roke - Mimox

Ametza - Kosakos

G.Garcia - Karkis

#### IGANDEA 20

10,00: Xirula - Txirristaka

11,00: U. de Chile - Chelsea

12,00: Lagun Toki - King - Kong

Lucky Luke - GorriBeltz

Pedrusco - Lanbroa

Aldavas - Sporting

## Parisetik bueltan




**Haritz Dantzari Taldeko** kideek Pariseko "Champs Élysées" antzokiaren aurrean ateratako argazkia da hau. Joan den asteburuan, hilak 11 eta 12, Juan Antonio Urbeltzek zuzenduriko Alakiketan ikuskizuna antzezten izan dira Pariseko antzoki ezagun honetan. 31 dantzari eta txistularik osatu dute elgoibartarren kuadrila hau eta Jose Inazio Sarasuak esan digunez, oso harrিতuta geratu dira han ikusitakoarekin. Antzezenak izugarritzko arrakasta izan du kritikoen arabera eta Sarasua bera ere, oso pozik agertu da dantzariek egindako lanarekin eta muntaia guztiarekin.

## Juan Carlos Karrilloren erakusketa

Juan Carlos Carrillo, 31 urteko debarrak, 35 oleo izango ditu ikusgai Kultur Etxeko erakustaretoan datorren apirilaren 3ra arte. Karrillok paisaiak, bodegoiak eta antzerako irudiak isladatzen ditu koadroetan, "neo-inpresionismoaren bidetik", berak esan digunez. Txikitatik zeukan pinturarako zaletasuna, baina duela bi urte arte ez zion pintzelari heldu. Ordutik zortzi erakusketa egin ditu, hiru bakarkako eta lau taldekako, eta bi sari irabazi.



## IMH HIZKUNTZAK IDIOMAS



## Hizkuntz ikastaroak

### ■ HIZKUNTZAK

Alemana, Frantsesa, Ingelesa

### ■ MERKATAL-INGELESEKO IKASTAROA

Iraupena 94.04.12tik 94.06.07ra (30 ordu)

### ■ UDAKO IKASTARO TRINKOAK

Mailak: Oinarrizkoa, Erdi-mailakoa, Aurreratua  
Elkarrizketa saioak

PET, First Certificate, Proficiency eta Merkatal ganbarako azterketetarako prestakuntza.

Ikastaro teknikoak, komertzialak eta itzulpen ikastaroak (eskaeren arabera).  
Iraupena: 94.06.27tik 94.07.27ra.

**Arratsaldeko ikastaroekin ere jarraitzen dugu. (Mailak: oinarrizkoa, erdi-mailakoa, First Certificate, aurreratua)**

**INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:** IMH HIZKUNTZAK

San Roke Auzoa, 1. 20870 ELGOIBAR. Tel.: 74 41 32 Fax: 74 41 53

## *Hamaika halako, Makina bat garelako*

Bada jada urtebete Elgoibarko Lanbide heziketa Institutu barruan erretzea debekatu zela. Erretzeak barruan isladatzen zuen presentzia txarrak eta erretzen ez duen jendearen etengabeko kexak medio, ikasle multzo bat bildu zen arazo honi irtenbideren bat bilatu asmoz. Azkenean, ikastetxe guztiko partaideen artean bozketa bat egitea pentsatu zuten, bidezkoena zela eta.



■ ■ **Ikasle eta irakasleek kanpora irten behar dute erretzera.**

**I**kaslegoaren gehiengoak, zentru barruan erretzea debekatzearen alde agertu zen, arazoari, teoriarik bederen, bukaera emango zitzaioela ziurtzat joz. Baina esaera zaharrak dioen bezala, "gauza txarrak bukaerarik ez". Birus horrek ikastetxean darrai oraindik, arratoiak ezezik, birusak ere edozein ingurugirotarara moldatzen baitira.

Orain, erre nahi duen jendea kanpora irteten da, irakasleak barne. Ikastetxearen inguruan hainbat eta hainbat zigarro kolilla ikus daitezke, begietan min emateko beste. Arazo horri behin eta betirako amaiera emateko "Ideia lehiaketa" bat jarri da martxan Mekanikako ikasleei zuzendua. Aurkezten

diren ideia hauek bideragarriak behar dute izan, helburua zigarro kolillak desagertzea da eta epea martxoaren 18an amaitzen da. Irabazleari, 10.000 ptako dirusaria emango zaio.

**LHIko ikasleak**

### *Zer iruditzen zaizu orain urtebete ikastetxe barruan ez erretzeaz hartu zen erabakia?*

**HARITZ TXURRUKA**  
LHIko ikaslea

"Nik lehen asteburuetan erretzen nuen, barruan ez erretzearen aldeko botoa eman nuen. Gaur egun egunero erretzen dut eta molestia handia dela deritzot, neguan batez ere. Gainera, hurrengo klasera minutu pare bat berandu joatearren, atzerapena jartzen digute. Orain botatu beharko banu, barruan erretzearen alde egingo nuke."



**KARLOS ANSOLA "TXARLI"**  
LHIko zuzendaria

"Zentru barruan ez erretzea ondo iruditzen zait. Gainera, legez debekatua dago leku publikoetan erretzea. Ez erretzea guk, irakasleok, proposatu genuen, kexa asko egoten zelako, neguan batez ere. Orain erretzaileak kanpora irteten gara eta arazoak gure artean darrai. Haseran zakarrontziak jartzen genituen baina jendeak lapurto egiten zituen. Baina arazoa ez da hori, zakarrontziak egon arren jendeak ez baititu kolillak bertara botatzen. Horrexegatik jarri dugu ideia lehiaketa bat martxan."





## Etxebizitzak

ETXEA SALGAI Arrillaga kaleko 14an  
**Interesatuak zatozte San Bartolome kaleko 7-4. pisura. Juanita.**

ETXE BAT DAUKAT ALOKATZEKO. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno Kalean.  
**☎ 74 08 09 (3,30-7,30)**

PISU BAT DAUKAT ALOKATZEKO San Roken.  
**☎ 74 00 37**

BUHARDILA BAT ALOKATZEA nahi dut. Berdin zait Elgoibar, Mendaro ala Alzolán izan.  
**☎ 19 29 31**

PISU BAT SALGAI dut San Frantzisko kalean 37- 4. pisua.  
**☎ 74 34 03 - 74 09 56**

ETXE BAT EROSIko nuke DEBAN. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gaeuz 19,30etatik aurrera.  
**☎ 74 04 59**

ETXE BAT SALGAI daukat SANTA KLARA 24an.  
**☎ 74 40 52**  
(Ofizina orduetan)

BASERRI BAT HARTUko genuke  
**☎ 76 62 64 Imanol**

PISU BAT SALGAI. UBITARTE 11. zenbakian.  
**☎ 74 12 07 Iñaki - Mertxe**

## Lana

FIESTA XR2-i SALGAI SS-AG. 40.000 km. Gutxi ibilia. Extra guztiak. Prezio egokia.  
**☎ 74 33 51**

31 urteko neska bat naiz eta etxeko lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest nago.  
**☎ 17 17 40.**

EDOZEIN TESTU moeta ORDENAGAILUZ pasatzen da. Grafikoak ezartzeko aukera. Deitzeko orduak: 14:00-16:00 eta 20:00-22:00  
**☎ 74 22 77 Iratxe**

Kontabilitate matematika, nominak eta seguritate soziala, administratibizako praktikak eta kosteetako kontabilitate KLASEAK EMATEN dira edozein mailatan. Esperientzia zabalak.  
**☎ 74 21 65 Javi**

Hiru neska gara eta astebukaeretan UMEAK ZAINTEKO PREST gaude.  
**☎ 74 05 36/74 08 46**  
(Gaeuz)

## Salerosketak

GARAJE BAT SALTZEN da. Santa Ana 46. Arraia duna. 1.600.000  
**☎ 74 11 30 Rosa**

ARTZAI TXAKURRAK SALGAI ditut. Bi hilabete dituzte.  
**☎ 74 33 76 (Ainhoa)**

ADI!! RENAULT 19 CHAMADE 16V. SS AK BAT SALTZEN dut. Prezio oso ona. BIKAINA.  
(Bazkal eta afal orduetan deitu)  
**☎ 74 23 64**

GARAJE BAT ALOKATZEN dut. Santa Ana 2an.  
**☎ 74 32 48 (Ana)**

Trikitixa jotzeko SOINU TXIKI BAT daukat saltzeko.  
**☎ 74 11 29**  
(Ofizina orduetan)

GITARRA ELEKTRIKO BAT SALGAI. Fender Stratocaster imitazioa eta 50 watioko Peavey amplifikadorearekin.  
(Arratsaldez ofizina orduetan)  
**☎ 74 02 36**

ARROPA SEKADORA - ZENTRIFUGADORA bat SALTZEN dut. Estrenatu gabe. 40.000 pta balio zuena 18.000 pta.  
**☎ 74 19 81 (Ana Mari)**

San Antolin auzoan LOKAL BAT ALOKATZEKO DAUKAT. Taberna ondoan.  
**☎ 74 17 95**

## Bestelakoak

Karitasek LO EGITEKO ZAKU BAT BEHAR du.  
**☎ 74 15 09 / 74 12 57**

Karitasek ERROPAK GORDETZEKO ARMAIRU BAT BAT BEHAR du.  
**☎ 74 15 09 / 74 12 57**

## PREMAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitala..756264  
Drogomenpeketasun Z..741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi Geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....742158  
Kultura Zerbitzua.....742158  
Mendaroko Udala ...756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Polikiroldegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Institutua .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....11 85 05  
74 22 67  
El Corro Español.....74 10 82  
Egin.....11 84 21  
Deia .....74 11 57

## Txiki BARRENeko DENBORAPASEN ERANTZUNAK

1. Mausitxa
2. Nola jantziko zinateke zure ezkontza egunean?
3. Asmakizunak: 1. Matxinsaltoa. 2. Ilargia. 3. Masusta
4. 25 lauki

## 18 OSTIRALA

### 18,30 ODOL ATERALDIA

✓ Odol Emaileen egoitzan.  
(P.M. Urruzuno 8).

### 19,05 PINTURA ERAKUSKETA

Juan Karlos Karrilloren margoak.

✓ Kultur Etxean.  
Apirilak 3a arte.

### 22,00 BERPIZKUNDE GARAIKO MUSIKA KONTZERTUA

Partaideak: Itxaropena abesbatza, Xabier Dominguez (Sacabuche), J.R. Ullibarri (Cornetto/Pikodun flauta) eta Jose Luis Francesena (organoa).

✓ San Bartolome Parrokian.  
Antolatzailea: Musika eta Dantza Fundazioa.

### 22,15 ZINEA

"Algo para recordar"

Zuzendaria: N. Ephron.  
Aktoreak: T. Hanks, M. Ryan, R. Malinger.  
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 19 LARUNBATA

### 11,00 AUTOMODELISMO ERAKUSKETA

✓ Mintxetan.  
Sarrera dohainik

### 12,00 GATZA ATENEOA

Gaia: Droga berriak.  
✓ Kultur Etxean.

### 19,30-22,15 ZINEA

"Algo para recordar"

Zuzendaria: N. Ephron.  
Aktoreak: T. Hanks, M. Ryan, R. Malinger.  
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan  
Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 20 IGANDEA

### 10,30 BANDAREN KALEJIRA

### 12,30 BANDAREN KONTZERTUA

Zuzendaria: Jose Antonio Osoro.

✓ Ikastolako aretoan.

Egitaraua:

- "Himno a Valencia" (J. Serrano)
- "Othello" (G. Rossini)
- "Casse Noisette" (Tschaikowsky)
- "Goyescas" (Granados)
- "El Caserio" (Guridi)

### 19,30-22,15 ZINEA

"Algo para recordar"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan  
Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 21 ASTELEHENA

### 20,30 ANDRAIZE EMAKUME TALDEAREN BILERA

✓ Kultur Etxean.

### 22,15 ZINEA

"Algo para recordar"

Zuzendaria: N. Ephron.  
Aktoreak: T. Hanks, M. Ryan, R. Malinger.  
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan.  
Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 24 OSTEGUNA

### 20,00 TAPIAREN KANTALDIA

✓ Kultur Etxean.  
Antolatzailea: AEK

## 25 OSTIRALA

### 22,15 ZINEA

"Tina" USA 1993

Zuzendaria: B.Gibson

Aktoreak: A. Basset, L. Fishburne.

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## txandak

### FARMAZIAK:

19 larunbata: Yudego

20, igandea: Yudego

21, astelehena: Bidasolo

22, asteartea: Bidasolo

23, asteazkena: Bidasolo

24, osteguna: Bidasolo

25, ostirala: Bidasolo

### OKINDEGIA:

19, larunbata: FOTERO

20, igandea:

BOUTIQUE DEL PAN

## ZINEA

### Algo para recordar

Maitasun istorio bat da N. Ephron-ek zuzendutako pelikula hau. Bakardadeen erretratu bat da, komedia erromantikoaren errekursoaren bitartez, ume baten sentimentuak lotzen direlarik. Ume honek Gabonetako irratsaio bati desio berezi bat, bere aitarentzako emaztea, eskatzen dio. Umearen ahotsa entzutean, emakume bat zeharo hunkiturik geratuko da. EEBBetan arrakasta handia izan duen pelikula da.

## ZINEA



# 2.000. BAZKIDEA

## MORKAIKO M.E.

eta

ASTIGARRAGA Kirolak, IRIONDO Kirolak, MUXI Kirolak,  
UZURI optika eta IKUS optikaren arteko akordioa.

**Bazkideak %10eko DESKONTUA** mendirako materialean



Egin zaitez bazkide eta ekarri azpiko txartela MORKAIKOra. Errosario 17. ☎ 74 02 97



IZEN-ABIZENAK.....

ZUZENBIDEA.....TEL.....

JAIOTEGUNA.....

KUOTA:  Haurra 500 pta.  
 Nagusia 1.000 pta

**BEHARREZKOA!**

BANKUA.....KONTU ZENBAKIA.....

PASSAT  
BERRIA



**Buruarekin erosten duenak,  
bihotzarekin ospatzen du.**



**Kalitatea detaileek ematen dute.**



**Zaletasun handien atzean  
arrazoi onak egoten dira beti.**

**Autos Eibar, S.A.**



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR